

6.6. Zaindariei prestakuntza, babesa eta atsedena ematera bideratutako elementu guztiak bultzatu eta mantentzea, baita dagoen erantzukizunari aurre egiteko trebetasunak eta balioko tresnak hornitzea eta haien osasuna zaintzeko lanak ekar lezakeen eragin negatiboa arintzea. Gure ustez, zaindaria zaintzeak ere osasun-politiken parte izan behar du. Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arretara bideratutako edozein politikak, egokia eta eraginkorra izan nahi badu, zaindariantzako arreta- eta babes-sistema ezin hobe bat artikulatu beharko du. Horrexegatik da beharrezkoa:

- egoitzetan eta eguneko zentroetan egonaldi laburretarako baliabideak areagotzea;
- etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartzea estaldura-tasak areagotuz, zerbitzua arintasun handiagoarekin martxan jarri, zerbitzuaren intentsitateak norbanakoaren beharretara egokituz, eta zaindariei etxeko zereginak egiten laguntzea aintzakotzat hartzea menpekotasun-egoeran dauden adingabe edo pertsona ezgaituen kasuetarako;
- atsedenerako programak, arreta psikoterapeutikokoak, prestakuntza-programak eta elkarri laguntzeko taldeak bultzatzea;
- gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politiketan sakontzea, zaintzeko lanetan erantzunkidetasuna sustatzeko.

Ez dirudi egokia denik zaindariei babesa eta arreta eskaintzeko programa horietako batzuk adineko pertsonen arduratzen diren pertsonen soil-soilik bideratuta egotea, hau da, menpekotasun-egoeran dagoen edozein pertsona (haren adina edo autonomia-falta eragin dion arrazoa zeinahi izanda ere) zaintzen duten pertsonak kontuan ez hartzea. Komenigarria da babes- eta prestakuntza-neurrien ezarpena hedatzea, edozein kasutan ere, zaindarien profesionalak eta ez profesionalak barne hartzeko.

6.7. Menpekotasunaren eta autonomia pertsonalaren araudiaren aplikazioak ukitzen dituen kolektibo nagusien babeserako elkarteek eta erakunde sozialek eskainitako programa eta zerbitzuen egonkortasuna bermatzea.

Aipatutako guztiaren ondorioz, prestazioen eta zerbitzuen eskaera ere menpekotasun-egoeran dauden herritarren beharren isla izatea bermatu beharko da, eskaera hori alde zurretik baliabideak egotearen edo ez egotearen arabera izatera baldintzatu gabe.

7. Herritarrentzako babes-maila osagarriak ezartzea euskal herri-administrazioek beren eskumenak gauzatzen dituztenean

Legearen pixkanakako aplikazio-erregimenarekin eraginkorra ez zen graduko menpekotasun-egoeran dauden pertsonen eskainitako zerbitzuak, Estatuko Administrazio Orokorrek ezarritakoak baino prestazio ekonomiko altuagoak zehaztea nahiz hark ezarritakoak baino intentsitate handiagoak adieraztea –kasu jakin batzuetan eta lurralde jakin batzuetan erregistratu ditugu– erakunde honek jokabide ontzat jotzen du, eta sustatu behar dela uste du.

Prestazio ekonomikoen zenbatekoa eta zerbitzuen gutxienean intentsitateak ez direla nahikoa ikusirik, eta kontuan hartuz menpekotasun arineko egoeran dauden pertsonen baliabideak behar dituztela, arrazoizkoa da etorkizunean ere horrelako neurriak hartzea.